

honen ahotsa, 52 hertzean bi-bratzen duena, espeziearen entzumen mugatik kanpo gertatzen da.

Whalien 52 «Dirudienez, Whalien 52 jaiotzez gorra izan daitezke, eta horregatik ez zuen inoiz ikasi bere kantuak frekuentzia egokian emititzen. Ez da beste balearik bere deiari erantzuteko gai. Teoria asko daude; balea urdin baten eta beste zetazeo baten nahasketa omen da», esan du Urretabizkaia.

Gure jendartearen isolamenduaren sinbolo bihurtu da Whalien 52. «Lagunen beharra du, baina inork ez dio erantzuten. Balea hor dabil, batetik bestera. Gu obrarekin batera deskubritzen joan gara... Batzuek botilak botatzen dizkiote, oha-

rra barruan sartuta, kantuak egin dizkiote... Oso famatua da».

Soinu horren oihartzunak alderik alde zeharkatzen du testua eta eszenaratze lana, tonu ez errealista batean, irudi poetikoz eta koreografiak beteta. Javier Asinek sortu du musika.

Eszenografiak ere protagonistek bizi duten bakardadea islatzen du. «Egurrezko etxetxoak dira, eta mugitu egiten dira. Pertsonaia mugimenduan dago, baina inoiz ez da elkartzen beste inorekin. Bakardadea eternalizatu egiten da, nolabait», dio aktoreak.

Interpretazioaz gain, zuzendaritzan ere parte hartu du Urretabizkaia. «Garbik deitu zidanean, zuzendari laguntzaile bezala aritzea proposatu zidan, eta aktore lanetan ere bukatu dut. Ez da lehenengo aldia bilerak uztartzen ditudana. Ainhoa Aierbek eta biok pertsonaia bera egin dugu, bion artean ibiliko gara emanaldietan. Gure pertsonaia hasieran txikia zen eta bat-batean hazten joan zen, eta dimentsio handiagoa hartu du. Aldiz, tratu txarrak jasaten dituen alaba batek izan behar zuen hezurdura eta askoz txikiagoa geratu da, beste batzuk pisu gehiago hartu dutelako», azaldu du.

Bi hizkuntzatan ondu dute lana. «Testua erdaraz idatzi zuen Garbik, eta Bego ahizpak itzuli du euskarara. Guk moldatu egin dugu, gure hizkerara ekarri, zuzentasunaren barruan». Bihar eta etzi Donostiako Antzoki Zaharrean euskaraz estreinatuko da, eta igandean erdaraz.

Ondoen hainbat emanaldi etorriko dira: Iruñea (urriak 15, euskaraz), Galdakao (urriak 26, espainieraz), Antsoain (urriak 31, espainieraz), Zizur Nagusia (azaroak 14, espainieraz), Hondarribia (azaroak 16, euskaraz), Lizarra (azaroak 23, espainieraz) eta Berriozar (azaroak 30)... Hurrengo urtean ere jarraituko dute emanaldiekin.

Hirugarren eleberria argitaratu du Lourdes Oñederrak, Ereinekin. «Azken batean» honetan ama-alaba batzuen ahotik bakardadeaz, oroitzapenez eta ETaren arrastoez dihardu.

Lourdes Oñederrak «Azken batean» nobela ondu du



Lourdes Oñederrak «Azken batean» eleberria aurkeztu zuen atzo. Jon URBE | FOKU

Alaia SIERRA | DONOSTIA

«Azken batean» nobela argitaratu berri du Lourdes Oñederra hizkuntzalari, ikerlari eta idazle donostiarrak. Bere hirugarren eleberriak Elisa ama eta Elixabete alabaren arteko harremana ardatz duela, identitateaz, denboraren joanaz eta duintasunaren aldeko borrokaz hausnartzeko aukera ematen du.

Atzo aurkeztu zuen, Erein argitaletxeko Inazio Mujika Iraola editorearekin batera. Azken honek azaldu zuenez, abiapuntua ama edo alaba ez den beste pertsonaia baten heriotza da, «Elisa amaren barrua lehenengo aldiz mugiarazten duena».

Horrela, oroitzapenak dira liburuaren «ardatz nagusia», baina baita familiako loturak, ama-alaben arteko «hurbiltasun nahasia», zahartzaroa, bakardadea «ezinbestean» eta «gure artean bizi izan dugun indarkeriaren arrastoak».

Emakumearen ikuspegitik idatzita dagoela esan zuen, bai idazlearen aldetik, baita protagonisten aldetik ere, ama emakumeen erresistentziaren irudikapena da eta. Hortaz, estiloari dago-kionez, editorearen esanetan, «xehetasunez eta memoria puskez josia» da, «intimoa».

Oñederrak berak onartu zuenez, idazleak «ahal due-

na» idatzen du; «ez, nahi nu-keena erabat eta guztiz». Batez ere «ahal dudana moduan kontatzen dut -aitortu zuen-; ez zait batere erraza gertatzen den istorioaren muntaketa egitea». Beti pertsonaietatik hasten da eta kasu honetan Elisa izan zen abiapuntua, baina alaba «be-rehala» etorri zitzaion.

«Azken batean» eleberrian, berak idatzitako besteetan bezala, pertsonaien arteko harremanean oinarrituta josi du istorioa, beraien arteko harremanaren «kora-piloetan harrapatuta», alegia. «Bi bizitasun, bi sufri-mendu, bi biolentzia eta bi kalte mota» ageri dira, ama-rena eta alabarena.